

Dantzari Txapelketa eta Artisau Azoka egingo dira datorren igandean

■ Artisau Azokan 35 postu egongo dira, Gudarien plazan, 11:00etan ■ Dantzari Txapelketa 15 bikoteren artean jokatu dute, Plaza Berrian, 12:00etan.

DATORREN igandean urteroko bi ikuskizun garrantzitsu izango dira Hernanin: 22garren *Artisau Azoka* eta 7garren *Dantzari Txapelketa*.

ARTISAU AZOKA

Gabiltza Artisau Biltzarrak antolatu du eta aurten, 35 postu jarriko dira; 26 artisau, 6 janari

postu eta talogileak.

Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Burgosetik etorriko dira artisauak. Hernaniarrak lau izango dira: Dionisio Usarraga, Benigno Albeniz, Nagore Insausti eta Axun Esnal.

Igandean, Gudarien plazan, 11:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte.

DANTZARI TXAPELKETA

Krskitiñak antolatuta, Gazteen Bikote Dantza Txapelketan, 15 bikote izango dira. Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Nafarroatik etorriko dira. Hiru hernaniar izango dira: Mikel Lasa, Nerea Lasa eta Haimar Abad. Plaza Berrian egingo da 12:00etan hasita. □

Musika ekitaldi asko, Santa Zezilia musikoen patroia ospatzeko

■ Santa Zezilia egunetik hasita, egunero izan dira kontzertu eta kantaldiak ■ Publikoak ondo erantzun du eta jende asko ibili da.



Santa Zeziliako kontzertua larubatean Sandiusterrin.

SANTA Zezilia Hernanin kontzertu asko utzita joan da, aurten ere. Urteroko ohiturari jarraituz, Hernaniko koruak kalean kantari ibili ziren Santa Zezilia egunean bertan. Musika Eskolako ikasleek, berriz, Biterin eman zuten kontzertua, aretoa jendez lepo zegoela. Musika Eskolako ikasleek ere urtero egiten dute kontzertu hori.

Ostiralean, David Alonso

saxofoi jole badajozdarra eta David Alonso pianojole valentziarrak eman zuten kontzertua. Larubatean, Kantuz Abesbatza, Hernani eta ingu-

ruko txistulariak, Metal Boskotea eta dantzariak aritu ziren. Eta, igandean, berriz, Musika Banda eta Parrokiko korua. □

'Elkarri'k Bake Konferentzia aurkeztuko du Hernanin

■ Asteartean egingo du, 19:30etan, Biterin.

ELKARRI giza taldeak bere Bake Konferentzia aurkeztuko du Hernanin, asteartean. Bake Konferentzia martxan da eta Hernanin egingo duen aurkezpenak bi ardatz izango ditu: **Bat)** Bake Konferentziaren nondik norakoak azaldu -abiapuntua eta helburuak, prozesuaren lau proiektuak, moderatzaileen lana...- **Bi)** Bake Konferentzian nola parte hartu. Izan ere, mode-

ratzaile eta alderdi politikoei 6 hilabeteetan isilka egingo duten lanaz gain, jendeak parte hartzea bultzatuko da; lortzen diren iritzi eta iradokizunak dossier batean plazaratuko dira gero, Elkarrik Kronikara bidalitako prentsa oharak dioenez.

Elkarrik hernaniar guztiak gonbidatu ditu bai aurkezpen- era joatea eta baita Bake Konferentzian parte hartzea ere. □

Inauterietarako Kartel lehiaketa, martxan

■ Kartelaren lema: "HERNANIKO INAUTERIAK 2002"

■ Bestalde, Inauteriak antolatzeko bilera: etzi.

INAUTERIAK iragartzeko kartela lehiaketa bidez egiten du udalak. Lehiaketa martxan da eta baldintzak kaleratu ditu. Kartelak lema jakina behar du: **HERNANIKO INAUTERIAK 2002**. Neurriei dagokionez, 38 zentimetro behar du zabalean eta 44 alturan. Lanak Biterin entregatu behar dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, aben-

duaren 21a bitarte.

Sari bakarra dago. Kartel irabazleak 45.000 ptako saria jasoko du.

INAUTERIAK

ANTOLATZEKO BILERA
Kultura batzordeak deituta, Hernaniko inauteriak antolatzeko bilera egingo da asteazkenean, azaroak 28. Bilera Biterin izango da, 18:00etan. □

Ipuin kontalaria gaur, Biterin

■ Haurrentzako ipuin kontaketa izango da gaur liburutegian. Bi saio dira: 3/4 urteko umeentzat, 17:30etan; eta 5/8 urte bitartekoentzat 18:00etan. □

MENDIRIZ MENDI

Mendi ibilaldia, Zaburu-ra,

■ Irteera gaztetxoentzat da eta datorren igandean izango da. Mendizaleak goizeko 08:00etan aterako dira Atsegindegitik.

BERTSOLARI TXAPELKETA

Maialen Lujanbio, finalera

■ Hendaian 814 puntu atera zituen eta abenduaren 16an Belodromoan izango da. Unai Agirre txukun aritu zen, baina, 694.5 puntu atera, eta ez da finalean izango. □

GOIKO ARDOAK



Joseba Gorostegi Goikoetxea

Tel 943 55 19 15 - Mob. 657 77 71 46



**GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:

☎ 943 33.22.37

Allianz

ASEGURUAK

Agustin Ezponda

AGENTZIA

Tel.: 943 557 326
656 735 109

ZINGI ZANGA

jatetxea

Eguneko menua

1.000 pztan.

Etxeko sukaldaritza

d f g c

Florida 54 - HERNANI

Bikain

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti
Bikain...



Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI

XALAPARTAKO SAGARDO LEHIAKETA

Xalapartan, Eizmendi onena

■ Otsuenea gelditu zen bigarren, Elorrabi hirugarren ■ Larunbatean izan zen.



Sagardogile sarituak, eta Txalapartako zuzendaritzako kideak, sagardo txapelketa ondorenean.

LARUNBATEAN izan zen Xalaparta elkarteko Sagardo lehiaketa. Txapeldun Eizmendi gelditu zen eta aldearekin gainera. Maixak eramandako

sagardoak 1343 puntu lortu zituen; Otsueneko Simonenak 1288 eta Elobarrriko Simonenak 1269. Nolahi ere hiru sariak Osiñagara joan dira

aurren. Zortzigarren Sagardo lehiaketa zen aurtengoa Xalaparta elkartearen. Soziedadea bete egin zen eta afaritan giro ederra izan zen.

■ ERRUGBIA

Hernanik 31- Bilbok 7: ‘errez’ eta ondo

LANDAREKO lokatzetan gelditu dira 2 puntuak. Hernanik partidu ona egin eta bilbotarrei nahiko erraz irabazi zien, atzo eguerdian jokaturako partiduan.

Landareko arduradunek jakinarazi digutenez, taldea ari da gorputza hartzen eta hobeto jokatzen.

Benbenen mutilak hasi dira partiduak irabazten, baina, sailkapenean oraindik beheko postuetan daude. Hurrengo partidua Karraldoren kontra jokatuko dute, Plentzian. □



Hernaniarrek partidu txukuna jokatu zuten Landaren.

👉 JASOTA BEZALA

Eskubide kontua da. Kastillanoak Gasteizen indarrez sartu zirenetik 800 urte badira eta Nafarroa armaz konkistatu zutena 500. Gero sorgin ehizak izan ziren eta foruen aurkako saiakerak. 200 urte pasatxo frantziar iraultzak gure legeak ezabatu zituela eta orain kasik 200 urte Cadizeko konstituzio Espainola ezarri ziguten. Bi gerra karlista galdu genituen XIX. mendean eta diruak eta eskubideak lapurtu zizkiguten Hegoaldeko. 36an berriro hil, erbesteratu eta espetxeratu gintuzten eta bi Gerra Mundialetan Frantzia zerbitzatu

hil ginen kontzentrazio kanpue-
tan edo atzerriko frenteeetan.

Mila urteotan, Espainia eta Frantziak Euskal Herriaren eskubideak zapuztu eta jan dituzte etengabe: legeak ezabatu eta sistema juridiko propio baten garapena ezabatzea, euskararen eza-
gupena eta erabilera mendez mende gutxiagotzea, hezkuntza sistema propiorik ezin eraikitzea, gure herriaren garapen ekonomiko atzerriko interesen zerbitzura jartzea, Euskal Herria zatikatzeara...

Zanpaketaren zanpaketaz eta ukazioaren ukazioz gure herrian

arrotz sentitzeraino iritsi gara eta egoera hau demokratikoki konpon dadin baino ez dugu eskatzen. Hau da, estatuen indarkeria erabiliz herri honi kendu zaizkion eskubideak aitortzea: herri bat garela eta beraz autodeterminazio eskubidea dugula gure lurralde osoan. Horrela bakarrik bizi ahalko gara benetako bakean eta garatu ahal izango dira proiektu politiko guztiak era demokratikoan.

Gure eskubideak defenda ditzagun, guk egiten ez badugu ez du inork egingo gugatik-eta!

Hernaniko Batasuna

SAN MARKOS MANKOMUNITATEA

Kristala biltzeko kanpaina, Hernaniko 70 tabernatan

■ Botatzen dugun kristalaren erdia taberne-
■ Azaroa arte, 268.290 kilo kristal birziklatu dugu.

KRISTALA birziklatzeko kanpaina jarri dute martxan San Markos Mankomunitateak eta *Ecovidrio* enpresak. Kanpaina hau zuzenduko dute Mankomunitateko herrietako taberna guztietara. Hernanin, 70 tabernatarara joango dira.

KRISTAL GEHIEN (% 47), OSTALARITZAN

Botatzen dugun kristalaren er-

dia ostalaritzan erabilitakoa da. Hala ere, ez da hori guztia birziklatzen. Horregatik, kanpaina hau tabernariei erreztasunak eman nahian egin dute. Alde Zaharretik kanpora dauden taberna guztietara joango dira eta kontenedore txiki bat emango diete karraio lanak egiteko. Alde Zaharreko tabernetara zuzenean iristen da Mankomunitateko zerbitzua.

■ ESKUBALOIA

Hernanik 23-14 irabazi zuen

■ HERNANIKO taldeak irabazi egin zuen gasteiztarren kontra. Ondo etorri zaie garaipen hau. Aurreko jardunaldian uste gabe galdu zuten eta beharrezkoa zuten partidu hau irabaztea.

■ WATERPOLOA

Askartza 15- Hernani 4, atzo

■ LEHENENGO mailako taldeak ez zuen lortu irabaztea. Kosta behar zaiela esan zuten tenporada hasieran, eta hala dirudi.

■ PELOTA

Alvarez eta San Sebastian Gipuzkoako ligako finalerdietara

■ ALVAREZ eta S. Sebastian, 22-14 irabazi eta final erdietara pasa dira. Manzisidor eta Martinez oraindik ez dira klasifikatu.

■ HITZ BITAN

✓ KONTZENTRAZIOA

**Beasaingo atentatua salatze-
kontzentrazioa gaur.** Hernaniko EA, EAJ, PSE-EE eta EB-k, “Hernaniar guztiak” kontzentrazioa deitu dituzte ustez ETAk Beasainen bi er-
tzainen kontra egindako atentatua gaitzesteko. Kontzentrazioaren lema “ETA EZ” izango da. Gaur, 20:00etan Atsegindegin.

✓ PELOTA- KRONIKA TXAPELKETA

Larunbatean jokatu zen Kronika Txapelketako lehenbiziko partidua. Joan den urtean bezala, aurren ere Kronikak pelota txapelketa antolatu du. Lehenbiziko partidua jokatu da. Emaita: Joxe/Arrospidek 22; Haritz/Mikelek 17.

✓ DOBERA

Datorren urteko egitasmoa aurkezteko asanblea ostiralean. Dobera Euskara Elkartek ostiralean egingo du 2002-ko egitasmoa aurkezteko asanblea, Biterin. Bestalde, Doberak aurren ere jarri du Eguberrietako loteria salgai. Honako taberna hauetan egongo da: Rioja, Kixkal, Aralar, Atxur, Zumitzan. Baita Maite zapata dendan eta Kronikako egoitzan ere.

✓ JUBILATU ETXEA

Iratxera eskurtsioa, bihar. Jubilatuta Egoitzak antolatuta, asteartean Iratxera joango dira, bi autobusetan. Bestalde, asteazkenean autoestimari buruzko hitzaldia izango da, Arantxa Martinek emanda, arratsaldeko 18.00etan. □

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40: Unibertsitate lege berriari buruz Ikasle Abertzaleak taldeko kide batekin **12:00:** Nikaraguako *Matagalpa* emakume taldeko Eva Molinarekin, hango hauteskunde ondorenari buruz **12:30:** Itziar Zubizarretarekin, Hernanin egingo duen ipuin kontaketa buruz.

HERIOTZAK

Maria Ormazabal Lasa

Larunbatean hil zen 90 urte zituela
Elizkizunak, gaur, 18:00etan Juan Bataiatzailea Parrokian

KIROLAK - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA	EMAITZAK	WATERPOLOA	EMAITZAK	PELOTA-EMAITZAK
Gorengo maila	Trintxerpe 1-Hernani 2	Eusk.H. Liga	Askartza 15-Hernani 4	Gazteleku 9-Ojuel-Fernandez 18
Emakum. liga.	Hernani 1-S.Ignacio 0	ERRUGBIA	EMAITZAK	Azpeitia 9-Gurrutxaga-Gorrotzategi 22
1. Erregionala	Intxaurren 0-Hernani 0	L. nazionala	Hernani 31-UPVBilbao 7	Hoz-Salaberria 13-Burutaran-Valero 30
Gazteak. L. Naz.	Hernani 0-Athletic 0	Kadetea. Euskal	Bera Bera 7-Hernani 47	Otegi-Elizalde 22-Tolosa 3
Gazteak Ohor.	Hernani 1-Urola 1	Infant. Lagunar.	Hernani 0-Atl.S Sebastian 45	Alvarez-San Sebastian 22-Azpeitia 5
Kadet. Ohor.	Hernani 4-Bergara 0	BOLEIBOLA	EMAITZAK	Mikel Arrieta 22-Amezketza 3
Kadet. 2.maila	Herrera 0-Hernani 1	1. Autonomika	Hernani 3-Sapuherr 0	Apaolaza-Zurutza 6-Mundarro 22
Haurrak Ohor.	Herrera 2-Hernani 1	PELOTA-KRONIKA TXAPELKETA		Manzisidor-Martinez 20-Intxaurren 30
ESKUBALOIA	EMAITZAK	Joxe-Arrospide 22-Haritz-Mikel 17		Ordizia 22-Ezeiza-Huizi 10
Euskadiko L.	Hernani 23-Lakua 14			